# Prólogo

Con la edición de este número del *Anuario de Eusko-Folklore* correspondiente a los años 1998-99 se completa la última década del siglo. Una centuria en la que se han operado grandes cambios culturales; mayores, quizá, que los producidos a lo largo de todo el milenio que termina.

La mutación es factor inherente a toda forma de cultura humana. Don José Miguel de Barandiarán nos advertía frecuentemente que el etnógrafo ha de constatar el grado de vigencia de los hechos que registra y ha de incorporar a su campo de observación los nuevos hechos culturales que van sustituyendo a aquéllos que quedaron obsoletos. En esta tarea están empeñados los grupos Etniker implantados desde hace tres décadas en todos los territorios de Vasconia.

De la mano de varios etnógrafos avezados en la investigación de campo y colaboradores todos ellos del Atlas Etnográfico de Vasconia, provienen los artículos que integran el contenido de este número. Los trabajos aquí publicados forman parte de un plan más amplio cual es el registro sistemático de todos los hechos que han configurado la cultura tradicional.

Con esta vocación nació el *Anuario de Eusko-Folklore* hace ochenta años. Los documentos etnográficos que ha ido publicando a lo largo de estas décadas forman un corpus de valor inestimable para conocer diversos aspectos de la vida de nuestros pueblos y las fases de su evolución cultural. Este valor es más manifiesto por el hecho de que la etnografía editada por este Anuario está desprovista de aditamentos teóricos y doctrinales cuya vigencia, por lo general, suele ser más efímera que los mismos hechos constatados. Las teorías pasan y los datos quedan.

*Ander Manterola*

# Hitzaurrea

*Anuario de Eusko-Folklore* argitalpenaren azken ale honekin, 1998-99 urteei dagokiona, amaiera emango zaio mendearen azken hamarkadari. Kulturaren alorrean aldaketa handiak ikusi dituen mendea izan dugu; beharbada, amaitzear dagoen milurteko osoan egon diren aldaketak baino ugariagoak izango ziren azken hamarkadakoak.

Giza kulturaren baitan berezkoa da aldaketa. On Joxe Miel Barandiaranek sarritan ohartarazten zigunez, etnografoak egiaztatu egin behar ditu biltzen dituen jarduerak zein neurritan dauden indarrean, eta bere azterketa-eremuan kontuan izan behar ditu zaharkituta geratu diren kultur ekintzen ordez azaldu diren berriak. Eta horrexetan dihardute hiru hamarkadatik hona Etniker taldeak Euskal Herriko lurralde guztietan.

Ale honetako artikuluak kanpo ikerketan trebatutako hainbat etnografok sortu dituzte, dendenak Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren laguntzaileak. Hona ekarri ditugun lanak egitasmo handiago baten osagaiak dira, izan ere, egitasmo horretan kultura tradizionala osatu duten ekintza guztien bilketa sistematikoa egin gura dugu.

Asmo horrexekin jaio zen duela laurogei urte *Anuario de Eusko-Folklore*. Hamarkada hauetan argitaratu dituen agiri etnografikoek balio handiko *corpus*-a osatzen dute gure herrietako bizimoduaren hainbat alderdi ezagutzeko eta herriaren kultur bilakaeran izan diren aldien berri izateko. Gainera, *Anuario* honetan argitaratutako etnografia gehigarri teoriko eta doktrina barik agertzen zaigunez, balio hori are agerikoagoa dugu; izan ere, teoria eta doktrinok gertaerak eurak baino iragankorragoak izan ohi dira. Teoriak aldatu egiten dira, baina datuak hor geratzen dira.

*Ander Manterola*